

JEAN ETCHEPARE MIRIKUAREN (1877-1935) IDAZLANAK.—I. *Euskal gaiak*. Piarres Charritton-ek prestatuturiko edizioea. Elkar. Donostia, 1984.

Ohi ez bezelako obra baten aurrez aurre gaude. Lan handia bait da Piarres Charrittonek eskaintzen diguna, zeren Jean Etchepare miriku zenaren lanak bost liburutan emateari lotu denez. Lehen obra hemen dugu, *Euskal gaiak*, eta ondorengoak beste hauek izango omen dira: bigarrena *Mediku solasak*; hirugarrena *Bazter orotako berri*; laugarrena *Berebitez eta...*; bosgarrena *Buruxkak*.

Lehen hontan aintzin solas aberatsa eskaintzen digu P. Charrittonek, lan osoaren plangintza agerraraziz. Oraingo honen edukina bere lau zatia erakusten digute. Hara nola osatzen diren kapituluok: 1. zatia, Pesta, Bilku, Biltzar, Mintzaldi, Sariketa (170 orrialde); 2. zatia, Euskalzale, euskalzain, euskal-idazle (85 orrialde); 3. zatia, Euskara, euskararen batasuna, euskararen irakaskuntza, euskal literatura (69 orrialde); 4. zatia, Eritzi eta kitzika (41 orrialde). Azkenean hiztegia eta aurkibidea, sailkapenaren errazteko. Zati bakoitza ohar aberasgarriz hornitua dator. Hala behar ere, zeren bestela zenbait pundutan nekez ulertuko zen zertaz ari zen garaiko gertakariak zehatz mehatz ezagutu gabe. Ohar horiek ere Charritton berberak erantsiak dira eta ezta makala izan bere lana.

Lanik gehienok egileak berak lehenago *Gure Herria* eta *Eskualduna* agerkarietan emanak zituen. Orotarik bada, eguneroko girotik jasotzen zituen gaiez aparte medikuntzara arte. Hogeitabost urterako euskaraz idazten hasia zen eta, bere miriku ofizioa betez gero, euskaldungoan ari zen mu-

garen bi aldeetakoekin harremanetan eta lumarik ez zuen baretu ikus, entzun eta gogoetak eskaintzen zionetik idatziz. Horietatik bilduz aspaldi eman zituen egileak berak bi liburu eder: *Buruchkak* (1910) eta *Berebitez* (1931). Horregatik, oso ongi egin du Charrittonek lan sakabanatuok bilduz, gaiez-gai jarriaz liburuetan ematea; eman ere, oharrez aberasturik.

Jean Etchepare mirikua, euskal literaturan ez ezik Euskal Herriaren historian eman den humanistarik hoberenetakoa dugu eta gure kulturaz zerbait jakin nahi duten guziak ezagutu beharrezkoa. Orotarik bada hor, euskara bera neurri bizi batean edozein gaiez erabiltzen duela, eta idazkera ere zuzena, garbia eta sotila darabil, esaldi apainez gogobihotzen pizgarri. Lapurtar-baxenabar hitzik anitz erabiltzen duenez, mugazemedikoen ulertterazteko badu azkenean 561 hitzeko hiztegiño argigarria.

Zer besterik eskatu genezake mende honen lehen partean idatzitako lan bildumazko liburu bati?

J. S. M.